

SARA



# ikusi Mikusi

10:00

19:00



3

APIRILAK

4

HAUR  
ETA GAZTE  
LITERATURA AZOKA

2020





**Leader européen  
des solutions d'assises**

*Europako jarleku  
egile nagusia*



[sokoa.com](http://sokoa.com)



# ZER DA IKUSI MIKUSI ?

**Ikusi Mikusi** proiektuak, euskara hutsean izanen den lehen HAUR eta GAZTE LITERATURA AZOKA, edo FESTIBALA sortzea du helburu, apirilaren 3a eta 4an.

SARA herrian ospatuko da ekitaldia, non ia 36 urte daramatza Idazleen Biltzarra antolatzen.

Gaur egun, ez da egina izan haur eta gazteeri begira halako azokarik Euskal Herrian!

Mugaren bi aldeetan, gazteentzako liburu azokak daude frantsesez edo gaztelaniaz, euskara apur batekin, edota euskal liburu azokak, helduentzako, haurrentzako eta musika eta literatura nahastuz .

Lehen aldikotz, 2020-eko apirilaren 3a eta 4ean, Sarako herriak atek zabalduko ditu, haur eta gazte literatura jaialdiari, ostiralean eskolei, eta larunbatean familiei.

# ZENDAKO IKUSI MIKUSI ?

Euskal Haur eta Gazte Literaturari lehio berri bat zabaldu nahi dio **Ikusi Mikusik**. Gertaera hunek, gizartean dagoen eskas eta behar bat betetzen du.

Euskal Herri Osoko ikasteak (eskola egunean), eta jendartea (famili egunean), elkartu nahi ditu, Euskaraz den Haur eta Gazte Literaturaren inguruan : iparraldea, hegoaldea eta Nafarroa.

Ekitaldi hau guztiz aurre-ikusia, gogoetatua eta diseinatuta da haurrentzat, bai altzarien aldetik, espazioaren antolaketa aldetik, baita ere jarduerak eta programatutako ikuskizun eta tailerren aldetik, adinen arabera.

Forma ibiltariak alderdi guztietan betetzen du jaialdiaren kontzeptua, eskola eta familientzat pentsatuta baita.

Haur eta gazte euskal literatura profesional guztiak, Euskal Herri osotik (Iparralde, Nafarro eta Hegoaldetik) presente izango dira: liburuen argitaletxeak (bakarrik euskarazko liburuak), idazleak, ilustratzaileak, liburu-saltzaileak, liburuzainak, kondalariak eta artistak.



Carrières • Travaux Publics  
Matériaux de Construction



Avenue d'Ursuya - CS 30031 - 64250 CAMBO-LES-BAINS

Tél. : 05 59 29 71 04 - Fax : 05 59 29 89 13

Mail : [contact@durruty-cambo.fr](mailto:contact@durruty-cambo.fr)

garroenea  
*aforpefrea*

oporretako alokairuak saran  
location d'hébergements de vacances à Sare

**0 6 1 6 5 9 3 2 9 8**

**[www.garroenea.com](http://www.garroenea.com)**

# IKUSI MIKUSIREN HELBURUAK :



★ Euskal haur eta gazte literatura, gaur egungo euskal kulturaren ardatz nagusietakoa plazara jalgitzea eta sustatzea, eskolako gazteei, eta publiko orokorrari hobeto ezagutzera emateko.

★ Euskal herri osoko (iparralde, hegoalde eta Nafarroa) ikasleak (eskolen egunean), eta jendartea (familien egunean) elkartzea eta gurutzatzea, literaturaren inguruan.

★ Ume ttikiak, haurrak eta gazteak, irakurtzeko, kondairak entzuteko, hitzekin jolasteko eta idazteko aukerak ematea, euskarazko albuma eta liburuen munduan murgilduz.

★ Familian, gurasoak beren seme-alabekin, euskal liburuen inguruan une goxo bat igarotzea, emozioak elkarrekin bizi daitezen, albumek eskaintzen duten irakurketa eta idazketa jolasei esker.

★ Euskal herri lurralde osotik, euskal haur eta gazte literaturarekin lotura duten egitura profesionalak inplikatzeko.

★ Euskarazko sorkuntzan murgilduak diren idazle eta ilustratzaileekin, zuzenean topo egitea.

ESKOLEN  
EGUNA

APIRILAREN  
3<sup>A</sup>  
OSTIRALA

Euskal Herri osotik etorritako 1 000 haur baino gehiagok, azokan, ikuskizunetan eta tailerretan parte hartzen ahalko dute, aitzinetik egindako lan eta obrak aurkeztuko dituzte beste ikasleei.

**IKUSI MIKUSIn** haurrak aktoreak dira.



# FAMILIEN EGUNA

APIRILAREN  
4 A  
LARUNBATA

Euskal Herri osotik etorritako familiek, euskarazko haur eta gazte literaturan goxatzeko eguna ezinbestekoa igarotzeko aukera dute : argialetxeen ezagutza, idazleekin topaketak, ikuskizunak, tailerrak elgarrekin bizitu...

**IKUSI MIKUSIn**, gurasoek seme-alabekin une goxoak partekatzeko aukerak dituzte, euskal haur eta gazte literatura munduan murgilduz.



# ÑIÑIEN XOKOA

Ume ttiki-ttikiendako gune berezi bat antolatua izanen da.

## ÑIÑIEKIN LITERATURAZ GOXATZEKO LEKUA

7 ▶ Pilota Plaza karpa ttikia

Loaldi musikalak, liburu egokituak, irakurketa musikatua...

## ÑIÑIEN ARTATZEKO LEKUA

8 ▶ Pilota Plaza karpa ttikia

Jatekoa berotzeko, xataurrak aldatzeko ...



# PROFESIONALEN ARTEKO MINTZALDIA

**Apirilaren 3a, ostiralarekin,  
arratsaldeko 05:00-etan** (eskolak  
abiatuak izanen direnean), profesionalen  
arteko mahain-inguru debatea antolatua da :  
argialetxe, idazle, ilustratzaile, erakaste,  
unibertsitalari, instituzioko profesionalekin.

**Interesa duten guztiek hurbil daitezke.**



## IDAZLE ETA ILUSTRATZAILEEKIN TOPAKETAK

### ESKOLEN EGUNA

**HAURRAK (5-8 urte)**

**7** Pilota Plazan karpa ttikia

Ostirala : 13:00 / 14:00

**JOKIN MITXELENA** eta **ANTTON KAZABON** ilustratzaile eta idazlearekin topaketak :  
« **ANIMALETRAK** » eta  
« **IZARREKIN LO** » obren inguruan,  
hitz joko eta Poemak.

**HAURRAK (6-10 urte)**

**4** Lur Berri gela

Ostirala : 12:00 / 13:00

**DANI MARTIRENA** idazlearekin topaketa : « **KOSIMOREN KATIUSKAK** » obran oinarritua.

## IDAZLE ETA ILUSTRATZAILEEKIN TOPAKETAK

### FAMILIEN EGUNA

**GURASOAK**  
eta **HAUR TTIKIAK (2-5 urte)**

**9** VVF gela

Larunbata : 10:30

**SAROA BIKANDI** idazlearekin topaketa : « **AZALERAKO IPUINAK** » obraren inguruan.

**GURASOAK**  
eta **HAUR TTIKIAK (6-10 urte)**

**9** VVF gela

Larunbata : 13:30

**JUAN KRUZ IGERABIDE** idazlearekin topaketa :  
« **ABEZEDARIO TITIRIJARIO** » obran oinarritua.

IKUSKIZUNAK adinka

## “OA-HUETAK”

TTIKIENTZAT (7 urte arte)

30 minuta / DANTZA

2 Keinu gela

“Lodikroko” obran oinarritua,  
Elirale Konpainiak aurkezturik.

Ostirala : 10:00 / 12:00 / 14:00

Larunbata : 10:30 / 15:00 / 16:30

## “VADEMEKUN”

HAURRENTZAT (8-12 urte)

45 minuta / ZIRKOA

6 Pilota plaza karpa handia

Literatura orokorrean oinarritua,  
Zirkozaurre Konpainiak aurkezturik

Ostirala : 10:00 / 12:30 / 15:00

Larunbata : 11:00 / 14:30 / 17:00

## KONTZERTUA

## “ODISEA”

GAZTEENTZAT (+12 urte)

45 minuta / MUSIKA

9 VVF gela

Tradizioan oinarritua,  
Pantxix Bidartek aurkezturik

Ostirala : 10:00 / 12:00

Larunbata : 11:30 / 15:00 / 16:30

Idazle

ilustratzaileekin

## TOPAKETAK

Idazle edota ilustratzaileek beren  
lan bat, obra bat, haurrei aurkeztuko  
diete, eta ondoren, gazteek,  
galderak pausatzen ahalko dizkiete.

4 Lur Berri gela

Ostirala : 12:00 / 13:00

DANI MARTIRENA idazlearekin

7 Pilota plaza karpa ttikia

Ostirala : 13:00 / 14:00

JOKIN MITXELENA eta ANTTON  
KAZABON ilustratzaile-idazleekin

9 VVF Gela

Larunbata : 10:30

SAROA BIKANDI idazlearekin

Larunbata : 13:30

Juan Kruz Igerabide idazlearekin

IZEN EMATEA  
DERRIGORREZKOA!

[www.ikusimikusi.eus](http://www.ikusimikusi.eus)

[info@ikusimikusi.eus](mailto:info@ikusimikusi.eus)

.....  
**TAILERRAK** adinka  
.....

## “ZURE LIBURUA SORTU”

**DENENTZAT**

**5** Lur Berri karpa

Haurrek beren sorkuntza idazten eta ilustratzen hasiko dira...  
Eta etxean, edo eskolan amaituko dute.  
Kiribil Elkarteak aurkezturik.

Ostirala : 10:00 / 12:00 / 14:00

Larunbata : 10:00 / 12:00 / 16:00

## “ARETO LITERARIOA”

**HAURRENTZAT (6-12 urte)**

**6** Keinu karpa

Generoa gaia jorraturik, haurrak jolas literarioan sartuko dira.  
Galtzagorri Elkarteak aurkezturik.

Ostirala : 10:00 / 12:00 / 14:00

Larunbata : 10:00 / 12:00 / 16:00

## “APP INFORMATIKA”

**GAZTEENTZAT (+12 urte)**

**3** Lur Berri gela ttiki

Amattoren Uzta obran oinarritua, gazteek jolasteko parada izanen dute, baita ere bukaera berri bat asmatzeko.  
Galtzagorri Elkarteak aurkezturik.

Ostirala : 10:00 / 12:00 / 14:00

Larunbata : 10:00 / 12:00 / 16:00

EUSKAL HAUR ETA GAZTE  
LIBURU GUZIAK SALGAI  
ARGITALETXEEN  
MAHAINETAN !



# ANTOLAKETA OROKORRA

Bi egun ezberdin :

## ESKOLEN EGUNA

... apirilaren 3an.

## FAMILIEN EGUNA

... apirilaren 4an.

Tokia : Sara herrian, Lapurdin kokatua.

Forma ibiltaria : sala ezberdinak, aterpeak, gune goxoak, ostatuak...

Janaria : Sarako elkarteek antolaturik (larunbata).

9 VVF gela



8

Pilota plaza  
Karpa ttikia

7

Pilota plaza  
Karpa HANDIA



GELAK



KARPAK



JAN, EDAN, JOLAS



## HAUR ETA GAZTE LITERATURA MUNDUA :

- ★ Euskal argitaletxeak  
(bakarrik euskara hutsean diren liburuak)
- ★ Idazleak
- ★ Ilustratzaileak
- ★ Tailerrak
- ★ Topaketak
- ★ Mintzaldiak

Sartze orokorra :  
**Dohainik**

Izen emateak,  
ikusizunetan (3€),  
eta tailerretan (**Dohainik**),  
beharrezkoak dira  
(tokiak mugatuak baitira).  
Janaria : Sarako elkarteek  
antolaturik (larunbata).

[www.ikusimikusi.eus](http://www.ikusimikusi.eus)



TTIKIENTZAT (7 urte arte)

# “Oa-huetak”

Oa-huetak-en hiru interpreteek, Chloé, Oihan eta Paxkalek, Eliraleren selauruan, Lodikroko liburu haundia (Amaia Hennebutte-k sortutako obra) atzematen dute.

Altxor bat aurkitzen duten haurrak bezala beraien gazteriaren suhartasunarekin berenganatzen dute liburua.

Bizia eta poetikoa, Oa-huetak errotik mugitua eta berritua den emanaldia da.

Euskal hizkuntzaren hitzek, interpreteen ahoetan, gorputz dantzarien ahalmenak idekitzen dituzte baita giro musikal harrigarri bezain ainitz bat.



HAURENTZAT (8-12 urte)

## “VADEMEKUN”

Liburutegi batean girotuta dagoen famili-ikuskitza, sorkuntzarako ate bezala irakurketa sustatzen duena.

Laburpena: Tadeo, pertsonaia bitxi zein maitagarria, irakurle amorratua da. Denbora asko ematen du liburueen irakurketan murgilduta. Orrialde bakoitzean magia eta ilusioz betetako munduetara eramaten duten milaka istorio aurkitzen ditu. Bidaia horietan irudimena, sormena eta kreatibitatea lantzeko gakoak aurkituko ditu.

Ikuskizun honetan ilusia eta magia akrobazia eta eskujokoekin nahasten dira fantasiako mundu bat irudikatzen.



GAZTEENTZAT (+12 urte)

## “ODISEA”

ODISEA, Ulisesena ala euskaldunena, ezberdina ote ?

Pantxix Bidart musikariak, euskal Ulisen Odisea gaurkotu du : geure kulturako sustraietan oinarriturik, obra ikaragarri garaikidea sortu du!

Pantxix BIDARTEk, hainbat euskal poeten obrak gorpuztu ditu: Aristi, Otamendi, Bilbao, Lete, Artzea..., batzuk musikatu, batzuk zuzenean kantatu, batzuk jatorrizko grabaketak eskainiz.

Nola heroia bilakatu ? Zoin da emaztearen tokia ? Bikotearen bilakaera ? Transmizioa ? Bakearen bidea ?... hainbat galdera, hainbat lehia zabalduak...

Poesia haria, musika ditarea, eta Pantxixen boza jostuna...

Hunkigarria, modernoa, sakona, ausarta, euskal sustraietatik bihotzera zeharkatzen gaituen obra unibertsal musikal originala : harri bitxi bat !



# BAITA ERE :

ESKOLEN  
EGUNA

## ESKOLEN AHO AURKEZPENAK

4 Lur Berri gela

Ostirala : 10:00 / 11:00 / 14:00 / 15:00

## ZARAUZTEKO LIZARDI IKASTETXEKO GAZTEEN ANTZERKIA

9 VVF gela

Ostirala : 13:00

## IRAKURKETA MUSIKATUAK

7 Pilota Plaza karpa ttikia

Ostirala : 10:30 / 11:00

## AHO BETE JOLAS ANIMAZIOA

5 Lur Berri karpa

Larunbata : 12:00

## IRAKURKETA MUSIKATUAK

7 Pilota Plaza karpa ttikia

Larunbata : 15:30

## LIBURUEN AURKEZPENAK

4 Lur Berri gela

Larunbata : 11:00 / 12:00 / 13:00 / 14:00

## LOALDI MUSIKALAK

7 Pilota Plaza karpa ttikia

Larunbata : 12:30 / 13:30

FAMILIEN  
EGUNA



# EUROPAKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA AZOKAK



## SALON DU LIVRE ET DE LA PRESSE JEUNESSE

SAISON SAISON


Haur eta gazte literatura azoka garrantzitsuen, Frantzia gertatzen da, Montreuil hirian, urte guziz, azaro amaieran.

Aste oso batez, publikoa eta munduko profesionalak biltzen dira, eta sorkuntza berriak plazaratzen dira, ikuskizunak eta tailerrak antolatuak dira, idazle eta ilustratzaileak emanak dira...

Eskolen eguna, familien eguna, baita ere profesionalen egunak antolatuak dira.

Literatura sorkuntza eta berrikuntza guztiak agerian jarriak dira.

Munduan zehar, ezinbesteko hitzordua bilakatu da.



## BOLOGNA CHILDREN'S BOOK FAIR

Bigarren hitzordu garrantzitsuen da apirila hastapenean Bolognan antolatzen den azoka, urte guziz. Baina azoka honetan, gehiago argitaletxe ta marrazkilarien arteko topaketa profesionalak dira antolatuak.

Ez da irekia publiko zabalari (eta sustut haurrei).

## FRANKFURTER BUCHMESSE



Urriari antolatzen den azoka mundiala honetan, gehiago profesionalari zuzendua da, argitaletxeen arteko egile eskubideen baimenen salmenten egiteko tokia bilakatu da.

27.

BIENÁLE  
ILUSTRÁČII  
BRATISLAVA  
2019



Ilustrazioen nazioarteko azoka da, 1966. urtetik bi urtetik behin ospatzen da Eslovakian. Haur eta gazteen liburu-etako marrazkiak erakusten dira.

Andersen sariarekin batera ospetsuenetarikoa da.

Euskal irudigile batzuek bertan Urrezko Sagarra Saria jaso dute, adibidez Asun Balzolak 1985. urtean eta Elena Odriozolak 2015. urtean.

Hiru euskal bazkideek : GALTZAGORRI ELKARTEA, PAMIELA eta KIRIBIL, haurrentzako literaturan espezializatuak, ahaleginak eta ezagutzak kontzentratzen dituzte, EUSKARAZKO HAUR eta GAZTE LITERATURA ekitaldi hau, nagusia eta epe luzera gertaera paregabea izan dadin.



GALTZAGORRI, Donostian kokatua den 29 urte dituen elkarte da, hegoaldean, euskal haur eta gazte literaturaren erreferentzia bilakatu dena.

Haur literatura sustatzen, zabaltzen eta garatzen du, gizarte zibilaren arlo guztiak sentsibilizatuz : egileak, idazleak, ilustratzaileak, profesionalak, familiak, eskola munduan haurrak eta irakasleak.



PAMIELA argitaletxea, Nafarroan kokatzen da, eta euskarazko lehen albumen edizioan aitzindaria izan da.

Gaur egun, munduko klasiko ezinbesteko lanak euskaratu ditu. Literatura hau bultzatzen jarraitzen du, urtero, Etxepare saria irabazi duen liburua argitaratuz.



KIRIBIL Senperen kokatua den elkarte da, eta proiektu artistikoak garatzen ditu, kultura eskaintzatik urrun diren publikoentzat, hala nola ñiñiak, haurtzaindegietan, adineko jendeak edota gaixotuak, zahar-etxeetan, eta gerrako errefuxiatuak akanpalekuetan...

Bere zuzendari artistikoa : Amaia Hennebutte, euskarazko albumen idazle-ilustratzailea denez (gaur egun 11. albuma argitaratua dauka), elkartearen ardatz artistiko nagusietako bat euskal haur literatura bilakatu da, modu naturalean.



# SUSTENGATZEN GAITUZTE



*Cazenave*

19 PORT NEUF KARRIKA  
BAIONA

[W.CHOCOLATS-BAYONNE-CAZENAVE.FR](http://W.CHOCOLATS-BAYONNE-CAZENAVE.FR)

**pleka**   
SARA

**jatetxea - ostatua - trinketea**  
**restaurant - bar - trinquet**  
**05 59 54 22 06 - [trinquetpleka@gmail.com](mailto:trinquetpleka@gmail.com)**

SARL IBANTELI - SIRET 830 621 066 00018 - le bourg 64 310 SARA/SARE



 **Collectivité  
service**

PAPERTEGI • ALTZARIAK • FOTOKOPIAGAILUAI

  
**Baketu**

**Crédit  Mutuel**

**Saint-Jean-de-Luz**

2 boulevard Thiers - 64500 Saint-Jean-de-Luz  
Tél. : 05 59 43 87 71 - Email : [02276@creditmutuel.fr](mailto:02276@creditmutuel.fr)

# PARTAIDEAK

SARA  
HERRIKO ETXEA



EUROREGION  
EUROESKUALDEA  
EUORREGIÓN

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE  
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



Communauté  
D'AGGLOMERATION  
PAYS BASQUE  
EUSKAL  
HIRIGUNE  
Elkargoa



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE



KANALDUDE



Harremana

ikusi  
Mikusi

[www.ikusimikusi.eu](http://www.ikusimikusi.eu)  
[info@ikusimikusi.eu](mailto:info@ikusimikusi.eu)

bixoko.